



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

GAIA: A ETA B TALDEETAKO HAINBAT KATEGORIATAN 2017-2018 LAN ESKAINTZA PUBLIKOAREN ONDORIOZ ALDI BATERAKO KONTRATAZIO-ZERRENDAK SORTZEA. A1 (A) eta A2 (B) taldeak.

EBAZPENA

Gasteizko Udalaren 20017-2018 Lan Eskaintza Publikoa arautzen duten Oinarri Orokorrak ikusi dira; Funtzio Publikoaren Arloko zinegotzi ordezkariaren 2018ko uztailaren 31ko ebazpenaren bidez onetsi eta 2018ko urriaren 1eko ALHAOn (113. zk.) argitaratu ziren.

Oinarrietako hamalagarren oinarriak dioenez, “Egokitzen diren aldi baterako langile beharrei erantzuteko kontratazio-zerrendak sortuko dira txanda irekiko eta barne-sustapeneko deialdietatik —proba guztiak gainditu bai baina lanposturik eskuratu ez dutenekin osatuko dira—. Zerrenda bakarra izango da. Barne-sustapeneko txandan aurkeztu direlarik oposizio-aldia gainditu duten pertsoneri, lehen ariketako lehen proba egitetik salbuetsita daudenez, 6 puntu gehiago emango zaizkie. Puntuazio horren arabera, txanda irekiko pertsonekin tartekatuko dira. Lanpostu eta kategoria profesional horretarako ordura arte indarrean egondakoa ordeztuko du zerrenda horrek, eta Udalak finkatua duen araudiari jarraiki kudeatuko da”.

Eranskinean zehazten diren deialdietako lehiaketa eta azterketa faseak bukatu dira.

Aldi Baterako Kontratazio Zerrenden Jarraipen Batzordeak –Aldi Baterako Kontratazioetarako Zerrendak Kudeatzeko Araudiaren 3, 4, 31.4,31.6, eta 31.7 artikuluetan xedatutakoarekin bat etorrira– Aldi baterako kontratazio-zerrenda berriak sortu eta handitzeko proposamenak egin ditu. Horien aurrean, eta Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legeak –abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua– 127. artikuluan aitortzen dituen eskumenak direla medio, eta alkateak 2019ko ekainaren 21ean Funtzio Publikoaren Arloko zinegotziaren gain utzitako aginpidea baliaturik, erabaki dut honako hau

EBAZTEA:

- 1) 2017-2018 Lan Eskaintza Publikoaren ondorioz **I. eranskinean** zehazten diren kategorietan **aldi baterako kontratazio zerrendak osatzea**.
- **2)** Aldi baterako kontratazio-zerrenda berriak **praktika aldiko funtzionarioak lanean hasten diren eguneko edo egun horren ondorengoko hasiera-data duten kontratuetan erabiliko dira**.
- **3) II. eranskinean** zehazten diren kategorietako kontratazio-zerrendak baliorik gabe geratuko dira, hots, **“historiko” izatera igaroko dira** aurreko puntuari adierazitako datatik aurrera.

- **4) Oposizio-aldia gainditu arren lanposturik eskuratu ez duten izangaien zerrendarekin osatzen diren kontratazio-zerrendak antolatzea (1. txanda), bai eta zerrenda horiek 2. eta 3. txandekin handitzea, honela:**
 - **1. TXANDA.-** Kontratazio-zerrendak osatuko dira oposizio-aldia gainditu arren lanposturik eskuratu ez duten eta deialdian adierazitako eskakizunak (adina titulazioa, IT txartelak, tasen ordainagiria...) betetzen dituztela garaiz eta behar bezala egiaztatzen duten pertsona guztiekin. Txanda barruko hurrenkera lehiaketa- eta oposizio-aldietako puntuazioen batura.
 - **2. TXANDA.-** Zerrendak handitu egingo dira aurreko txandan ez dauden, oposizio-aldia gainditu duten, lanposturik lortu ez duten, eta eskakizunak bete arren, Epaimahaiak ezarritako epean egiaztatu ez dituzten pertsona guztiekin. Egiaztagiria aurkezteko epe berri bat ezarriko da, balioetsieta kontratazio-zerrendetan sartu ahal izateko. Txanda barruko hurrenkera lehiaketa- eta oposizio-aldietako puntuazioen batura.
 - **3. TXANDA.-** Zerrendak handitu egingo dira oposizio-aldiko lehen ariketa bai baina bigarena gainditu ez duten pertsona guztiekin, baldin eta eskakizunak betetzen dituztela garaiz eta behar bezala egiaztatzen badute. Hainbat eguneko epea ezarriko da egiaztagiria aurkezteko. Txanda barruko hurrenkera oposizio-aldiko bi probetako puntuazioen batura.
- **5) Interesatuei jakinaraztea beren eskabideak kontratazio-zerrendak kudeatzeko zerrendan aktibatze prozeduraz (III. eranskina)**
- **6) Interesatuei ebazpen honen edukiaren berri ematea,** iragarki-taula elektronikoan zein Udalaren webguneko "2017-18ko Enplegu Eskaintza Publikoa" atalean argitaratuta, eta izangaiek xede horretarako emandako posta elektronikoko helbideetara mezu bana bidalita.
- **7) Interesdun orori ebazpen hau jakinaraztea, zeinak agortu egiten baitu administrazio bidea;** horren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahalko da zuzenean Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, jakinarazten den egunaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean; bestela, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahalko zaio erabakia hartu duen organoari berari, **argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita hilabeteko epean.**

Hala agindu eta sinatzen du Gasteizko Udaleko Giza Baliabideen zinegotzi ordezkari Iñaki Gurtubai Artetxek, 2020ko ekainaren 22an.

I. ERANSKINA. 2017-2018 LEPeko emaitzetan oinarrituta, kontratazio-zerrendak sortuko dituzten kontratazio-zerrendak. A1 (A) eta A2 (B) taldeak.

Zerrendakodea	LEPKO	Convocatoria	Deialdia
303	A103	ADMINISTRACIÓN GENERAL	ADMINISTRAZIO OROKORRA
304	A104	INTERVENCIÓN (HACIENDA)	KONTU-HARTZAILAZIA (OGASUNA)
305	A105	ECONOMÍA	EKONOMIA
306	A106	ARQUITECTURA (URBANISMO)	ARKITEKTURA (HIRIGINTZA)
307	A107	ARQUITECTURA (PAISAJE URBANO)	ARKITEKTURA (HIRI PAISAIA)
308	A108	APLICACIONES INFORMÁTICAS	APLIKAZIO INFORMATIKOAK
309	A109	EXPLOTACIÓN Y SISTEMAS INFORMÁTICOS	USTIAPENA ETA INFORMATIKA SISTEMAK
310	A110	TELECOMUNICACIONES	TELEKOMUNIKAZIOAK
311	A111	PERIODISMO	KAZETARITZA
312	A112	GESTIÓN DE LA INFORMACIÓN	INFORMAZIOAREN KUDEAKETA
313	A113	SOCIOLOGÍA	SOZIOLOGIA
314	A114	PSICOLOGÍA	PSIKOLOGIA
315	A116	RECURSOS HUMANOS (PSICOLOGÍA)	GIZA BALIABIDEAK
317	A117	FORMACIÓN OCUPACIONAL	LANERAKO PRESTAKUNTZA
318	A118	SALUD LABORAL	LANEKO OSASUNA
319	A119	DOCUMENTALISTA	DOKUMENTALISTA
320	A120	AGENTE IGUALDAD	BERDINTASUN AGENTEA
321	A121	ARTES ESCÉNICAS	ANTZEZTE ARTEAK
322	A122	MICROBIOLOGÍA	MIKROBIOLOGIA
323	A123	BROMATOLOGÍA	BROMATOLOGIA
346	A201	TOPOGRAFÍA	TOPOGRAFIA
324	A202	INGENIERÍA EMPLEO	INGENIARIA (ENPLEGUA)
325	A203	INGENIERÍA OBRAS PÚBLICAS	OBRA PUBLIKOETAKO INGENIARIA
326	A204	INGENIERÍA MEDIOAMBIENTE	INGURUMENEN INGENIARITZA
327	A205	INFORMÁTICA - TELECOMUNICACIONES	INFORMATIKA / TELEKOMUNIKAZIOAK
328	A206	ORGANIZACIÓN POLICÍA LOCAL	UDALTZAINGOKO ANTOLAKUNTZA
329	A207	ARQUITECTURA TÉCNICA	ARKITEKTURA TEKNIKOA
330	A208	PREVENCIÓN LABORAL (HIGIENE)	LAN PREBENTZIOA - HIGIENEA
331	A209	PREVENCIÓN LABORAL (ERGONOMIA)	PREBENTZIOA - ERGONOMIA
332	A210	ORGANIZACIÓN RRHH	GIZA BALIABIDEEN ANTOLAKUNTZA
333	A211	GESTIÓN ACTIVIDADES SOCIOCULTURALES	KULTUR JARDUEREN KUDEAKETA
334	A212	GESTIÓN ACTIVIDADES DEPORTIVAS	KIROL JARDUEREN KUDEAKETA
335	A213	TRABAJO SOCIAL	GIZARTE LANEKO GRADUA
336	A214	INMIGRACIÓN	IMMIGRAZIOA
337	A215	EDUCACIÓN SOCIAL	GIZARTE HEZKUNTZA
338	A216	DIETISTA	DIETISTA
339	A217	SALUD PÚBLICA	OSASUN PUBLIKOA
340	A218	ENFERMERÍA GERIÁTRICA	ERIZAITZA GERIATRIKOA
341	A220	ARCHIVO	ARTXIBOA
342	A221	NORMALIZACIÓN (EUSKERA)	NORMALIZAZIOA (EUSKARA)
343	A224	INGENIERÍA TRÁFICO	INDUSTRIA INDUSTRIALEKO GRADUA - TRAKIFOA
	A225	GESTIÓN ADMINISTRATIVA	ADMINISTRAZIO KUDEAKETA
345	A226	INCLUSIÓN SOCIAL	GIZARTE INKLUSIOA

II. ERANSKINA. "Historiko" egoerara igaro diren zerrendak.

Zerrendakodea	Denominación	Izena
231	AGENTE DE IGUALDAD	AUKERA-BERDINTASUNEN AGENTEA
223	ARQUITECTO/A	ARKITEKTOA
276	ARQUITECTO/A (PGOU)	ARKITEKTO (PGOU)
236	ARQUITECTO/A TÉCNICO/A	ARKITEKTO TEKNIKOA
7	ECONOMISTA A/01/195	EKONOMILARIA
238	EDUCADOR/A SOCIAL	GIZARTE HEZITZAILEA

Zerrenda-kodea	Denominación	Izena
20	ESPECIALISTAS EN BROMATOLOGÍA A/99/168	BROMATOLOGIAN ESPEZIALISTAK
180	INGENIERO TECNICO INDUSTRIAL	INDUSTRIAKO INGENIARI TEKNIKOA
237	INGENIERO/A TÉCNICO OBRAS PÚBLICAS	HERRI LANETAKO INGENIARI TEKNIKOA
100	INGENIEROS/AS TECNICOS TOPOGRAFOS B/99/173	INGENIARI TEKNIKOA: TOPOGROFOA B/99/173
275	MEDICOS ESPECIALISTAS MEDICINA DEL TRABAJO	LANEKO MEDIKUNTZA ESPEZIALITATEKO MEDIKUAK
92	NORMALIZADOR/A LINGÜÍSTICO B/03/232	HIZKUNTZ NORMALIZATZAILEA
226	PSICOLOGO/A	PSIKOLOGOA
225	SOCIÓLOGO/A	SOZIOLOGOA
214	T. M. GESTION CULTURAL: COORDINACION DE EXPOSICIONES.	KULTUR KUDEAKETA: ERAKUSKETAK KOORDINATZEKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA
213	T. M. GESTION CULTURAL: PROYECTOS PEDAGOGICOS.	KULTUR KUDEAKETA PROIEKTU PEDAGOGIKOEN ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA
235	T.M. ACTIVIDADES SOCIO-CULTURALES	EKINTZA SOZIOKULTURALETAKO E.T.
240	T.M. ARCHIVO	ARTXIBOKO E.T.
292	T.M. COMUNICACIONES	KOMUNIKAZIOKO E.M. TEKNIKARIA
245	T.M. COORDINADOR/A DEPORTIVO/A	KIROL KOORDINATZEKO E.T.
194	T.M. DIETETICA Y NUTRICIÓN	.
274	T.M. GESTIÓN DE RESIDUOS	HONDAKINEN KUDEAKETAKO ERDI MAILAKO TEKNIKARIA
243	T.M. PREVENCIÓN DE ERGONOMIA	PREBENTZIOKO E.T. (ERGONOMIA)
242	T.M. PREVENCIÓN DE HIGIENE INDUSTRIAL	PREBENTZIOKO E.T. (HIGIENE)
246	T.M. TRABAJADOR/A SOCIAL	GIZARTE LANGILEA
222	T.S. ADMINISTRACIÓN GENERAL	ADMINISTRAZIO OROKORREKO G.T.
227	T.S. APLICACIONES INFORMÁTICAS	INFORMATIKA APLIKAZIOETAKO G.T.
11	T.S. DOCUMENTALISTA A/01/199	DOKUMENTALISTA G.T.
8	T.S. EMPLEO (GENERICO) A/01/196	ENPLEGUKO G.T. (GENERIKOA)
9	T.S. EMPLEO (ORIENTACION) A/01/197	ENPLEGUKO G.T. (ORIENTAZAILE)
191	T.S. EMPLEO, FORMACION Y PROYECTOS, A. DISEÑO Y COMUNICACION	ENPLEGUKO G.T. (PRESTAKUNTZA, PROIEKTUAK, DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA)
230	T.S. EMPLEO-FORMACIÓN (ÁREA INFORMÁTICA)	ENPLEGU/PRESTATZEKO G.T. (INFORMATIKA ARLOA)
228	T.S. EXPLOTACIÓN Y SISTEMAS INFORMÁTICOS	USTIAPEN ETA INFORMATIKA SISTEMAKO G.T.
10	T.S. GESTION (AREA INFORMATICA) A/01/198	KUDEAKETAKO G.T. (INFORMATIKA ARLOA)
234	T.S. PAISAJE URBANO	HIRI PASAIAKO G.T.
14	T.S. PLANIFICACION A/01/202	PLANGINTZAKO G. T.
298	T.S. PLATAFORMAS TIC	IKT PLATAFORMEN ALORREKO GOI MAILAKOTEKNIKARIEN
229	T.S. SELECCIÓN	LANGILE HAUTAKETAKO G.T.
233	T.S. TURISMO	TURISMOKO G.T.
206	TCO. SUPERIOR GESTION CULTURAL	KULTUR KUDEAKETA GOI TEKNIKARIA
177	TECNICO MEDIO DE ORGANIZACION	ERDI MAILAKO ANTOLAKUNTZA TEKNIKARIA
188	TECNICO SUPERIOR EN CIENCIAS DE LA INFORMACION	INFORMAZIO ZIENTZIETAKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA
270	TECNICO/A GESTIÓN DE LA INFORMACIÓN	INFORMAZIO KUDEAKETAKO TEKNIKARIA
273	TÉCNICO/A SUPERIOR DE INTERVENCIÓN GENERAL	KONTU-HARTZAILETZA NAGUSIKO TEKNIKARIA
23	TÉCNICOS/AS EN SISTEMAS GESTORES DE BASES DE DATOS A/99/175	DATU BASEEN KUDEAKETA SISTEMETAKO TEKNIKARIAK A/99/175
278	TM CONTROL ACTIVIDADES (MEDIO AMBIENTE)	JARDUERAK KONTROLATZEKO ERDI MAILAKO TEKNIKARIA (INGURUMENA)
291	TS CONTROL CONTRATAS Y RESIDUOS	KONTRATA ETA AZPIKONTRATEN KONTROLEKO TEKNIKARIA
268	TS ECONOMISTA (AREA FINANCIERA)	EKONOMIA ARLOKO TEKNIKARIA (FINANTZA ESPEZIALITATEA)
266	TS PLANIFICACIÓN AMBIENTAL Y GESTIÓN DE RESIDUOS	INGURUMEN PLANGINTZA ETA HONDAKINEN KUDEAKETAKO G.T. TEKNIKARIA
264	TS PLANIFICACIÓN ESTRATEGICA	ESTRATEGI PLANGINTZAKO GOI TEKNIKARIA
290	TS PROYECTOS ECOLOGÍA URBANA	HIRI EKOLOGIAKO PROIEKTUETAKO GM TEKNIKARIA

III. ERANSKINA. Kontratazio-zerrenden sisteman eskabideak aktibatzeko prozedura

Argibideak, 2017-2018 LEPEko hautaketa-prozesutik sortutako kontratazio-zerrendetan eskabideak sartzeko prozeduraz

Egiaztapena, txandaren arabera:

1. txanda Norberari buruzko informazioa eta hautaketa-prozesuaren emaitzei buruzkoa (baldin eta emaitza horiek behin betikoak badira) aurretiaz txertatuta daude kontratazio-zerrenden sisteman.

Txanda horretako kideek egiaztatu dute alde zuzenetik dagokien dokumentazioa.

Ofizioz sartu dira horiek zerrendan, "Lanerako gertu" egoeran (ahalik eta gertutasun handienarekin, baldin eta ez badaude Udalean lanean), edo "Lanean, beste zerrenda batetik" egoeran, kontrako kasuan.

Egoera-aldaketak (esaterako, aldi baterako baja ematea, edo parte hartzeko baldintzak aldatzea) webgunetik egin behar dira. Webguneko zenbait lekutatik sartu daiteke kontratazio-zerrendetan, esaterako hemendik: <http://www.vitoria-gasteiz.org/hautatzeprozesuak>.

Datu pertsonalak kontsultatzeak nolabaiteko identifikazio elektronikoa eskatzen du, esaterako NAN elektronikoa, Izenpe txartela, Herritarren Udal Txartela([HUT](#)) edo antzekoren bat.

2. txanda Norberari buruzko informazioa eta hautaketa-prozesuaren emaitzei buruzkoa (baldin eta emaitza horiek behin betikoak badira) aurretiaz txertatuta daude kontratazio-zerrenden sisteman.

Txanda honetako kideek EZ dituzte eskabideak (kasu batzuetan ezta merituak ere) egiaztatu. Egoera (alta/aldi baterako baja) eta –behar izatera– parte hartzeko baldintzak hautatu baino lehen, egiaztapen-izapidea egin beharko dute. Tramite hori egin eta eskabidea balioetsi arte, kontratazio-zerrendan "Hasierako egoera-Aldi baterako baja" egoera administratiboan egongo dira, zeinean ez baita lan-kontraturik eskaintzen.

3. txanda Norberari buruzko informazioa eta hautaketa-prozesuaren emaitzei buruzkoa (baldin eta emaitza horiek behin betikoak badira) aurretiaz txertatuta daude kontratazio-zerrenden sisteman.

Txanda horretako kideek EZ dituzte eskabideak egiaztatu. Egoera (alta/aldi baterako baja) eta –behar izatera– parte hartzeko baldintzak hautatu baino lehen, egiaztapen-izapidea egin beharko dute. Tramite hori egin eta eskabidea balioetsi arte, kontratazio-zerrendan "Hasierako egoera-Aldi baterako baja" egoera administratiboan egongo dira, zeinean ez baita lan-kontraturik eskaintzen.

Egiaztapena egiteko bideak:

Aurrez aurre: Sistema nagusia, kontratazio-zerrendan 2. edo 3. txandan egoteko eskakizunak betetzen dituen pertsona ororentzat.

Hitzordua erreserbatzeko, jo [esteka](#) honetara. Hitzordura eskatzailearen NANA eta deialdian parte hartzeko aukera ematen duen titulu akademikoa aurkeztu behar dira. Tasarik ordaindu ezean, edo tasa murriztua ordaindu izatera, horretarako bide ematen duen egoeraren egiaztagiria. Alta eskatu nahi izatera, zerrendan parte hartzeko baldintzak jakinarazi beharko dira, [Aldi Baterako Kontratazio Zerrendak Kudeatzeko Araudia \(2014/06/18ko ALHAO, 68 zk.\)](#) honetako I. eranskineko parametroen arabera.

E-posta bidez: Soilik agiriak Gasteizko Udalaren aldi baterako kontratazioetarako zerrendetan balioetsita dituzten eta hautaketa-prozesuan parte hartzeko tasa osorik ordaindua duten pertsonentzat.

Kasu horretan e-postako mezu bat bidali behar da seleccpersonal02@vitoria-gasteiz.org helbidera. Gaia eremuan **“2017-2018 LEP. Kontratazio-zerrendak”** adierazi behar da, eta mezuaren barruan hauxe: “LEP honetan nire dossier pertsonalari dagokion agiriak egiaztatzea eskatzen dut, horren bidez ALTA edo ALDI BATERAKO BAJA (hautatu aukera egokia) egoeran agertzeko kontratazio-zerrendan”. Dagokion kontratazio-zerrenda gehitu behar da, eskatzailearen izen-abizenak eta NANA adierazi, webgunean ager daitezkeen datuak zuzendu (behar izatera, eta zerrendan alta egoeran agertzea eskatuz gero, bertan parte hartzeko baldintzak jakinarazi beharko dira, [esteka](#) honetako l. eranskinetako parametroen arabera.

Hortik aurrerako aldaketak oro, aukeran Udalaren webguneako [“Kontratazio zerrenda”](#) atalean egin beharko dira, [“http://www.vitoria-gasteiz.org/hautatzeprosesuak”](http://www.vitoria-gasteiz.org/hautatzeprosesuak) orrialdeko menutik joanda.

Epeak:

Agiriak egiaztatzeko epea mugarik gabe izango da irekita, zerrenda indarrean egon bitartean.

Ez zaio lan-eskaintzarik egingo LEPeen agirien bidez parte hartzeko eskakizun guztiak betetzen dituztela egiaztatzen ez duen inori.

Zerrenden iraunaldia kontratazioekin batera hasiko da, irailaren 15ean edo hortik aurrera.